

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 85/2023 Foru Agindua, apirilaren 17koa, Zalduekdoko hiri antolamendurako plan orokorraren ingurumen adierazpen estrategikoa ematen duena

Zalduekdoko hiri antolamendurako plan orokor berriaren (aurrerantzean, HAPO) izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren mende dago. Prozedura hori honako hauen bidez arautzen da: abenduaren 9ko 21/2013 Legea, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; abenduaren 9ko 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa; eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

Prozedura horren eremuan, 2018ko urriaren 26an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko agiria egin zuen, arestian aipatu dugun Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 5. artikulua ezarri duenari jarraikiz. Agiria eman baino lehen, kontsulta egin zitzaizen ukitutako herri administrazioei, natura ikertzea eta zaintzea helburu duten elkarteei eta gainerako interesdunei, eta jasotako erantzunak ingurumen azterketa estrategikoaren irismeneko agirian jaso eta txertatu ziren. Geroago, Zalduekdoko Udalera helarazi zen agiria.

Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko eskatu berri dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari. Ingurumen azterketa estrategikoaz (IAE) eta hirigintza dokumentazioaz gain, Zalduekdoko udalerriko HAPO izapidetzeko administrazio espediente osoari buruzko dokumentazioa jaso zen. Besteak beste, honako dokumentazio hau nabarmendu behar da:

1. Zalduekdoko Udalak jasotako alegazio bakoitzari emandako banakako erantzuna eta udalaren txosten teknikoa, 2021eko azaroko HAPOren hasierako onarpenari dagokionez egindako alegazioei buruzkoa.

2. Zalduekdoko Udalak jasotako alegazio bakoitzari emandako banakako erantzuna eta udalaren txosten teknikoa, 2022ko apirilko hasierako onarpenaren dokumentu osagarriari egindako alegazioei buruzkoa.

3. Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta fasean jasotako alegazioak.

Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuak, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren aginduz, honako ingurumen adierazpen estrategikoa eman du, 21/2013 Legearen 25. artikulua ezarritakoari men eginez, formari nahiz edukiari dagokienez.

Ingurumen adierazpen estrategiko honetan jasotako zehaztapenak, 21/2013 Legearen 26. artikuluan adierazitakoaren arabera, HAPOn jaso beharko dira, eta, gainera, sustatzaileak aipatutako 21/2013 Legearen 26.2 artikuluko b) apartatuan jasotako hizpaketak biltzen dituen laburpena egingo du. Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 74.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ingurumen adierazpen estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen adierazpen estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman zuen 2023ko apirilaren 4an (18/109 espediente).

1. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. HAPOn helburuak. Aztertutako kokapen aukerak eta hartutako irtenbideak

1.1. Ingurumen ebaluazio estrategikoaren eremu geografikoa.

Zalduondo udalerrria Arabako udalerrri txiki bat da. 12,03 km² eta 207 biztanle ditu (EUSTAT, 2022). Arabako Lautadaren ipar-ekialdean dago, Arabako Lautadako eskualdearen barruan. Biztanle gune bakarra duen Arabako eremu horretako udalerrri bakarra da (udalerrriak herriaren izen bera dauka). Udalerrrian ez dago finkatutako industriarik, ezta jarduera ekonomiko aipagarrikerik ere, nekazaritza izan ezik.

Zalduondo Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) oso desberdinak diren bi eremuren arteko mugan dago: alde batetik, zonalde menditsuak daude. Bertan, altuera ertaineko tontorrak eta baso autoktonoz edo baso ekoizpenerako azalera handiez estalitako mendi-hegalak daude. Bestetik, Arabako Lautada osatzen duen eremu laua dago, eta nekazaritza erabilerek aspalditik eraldatutako paisaia du. Udalerrriaren geomorfologia, beraz, bi erditan banatuta dago: batetik, zonalde garaiak, zeinak, aldi berean, Urkilla mendilerroaren gailurren eta mendi-hegalen artean bereizten baitira, eta, bestetik, Arabako Lautada. Bi eremuak lotzen dituen ardatza Arakil ibaia da. Ibaia iparraldetik hegoaldera doa, zenbait ibaiadarrekin bat egin ondoren.

1.2. HAPOn helburuak.

Ingurumen azterketa estrategikoaren arabera, honako hauek dira HAPOn helburuak:

Etxebizitza:

– Lurzoru urbanizaezinaren artifizializazioa saihestea barne hazkundera sustatzearen bidez, honako proposamen hauek praktikan jarritz:

- Etxebizitza eta eraikin zaharren birgaitzea sustatzea (bai araudiaren bitartez, bai neurri fiskal/ekonomikoen bitartez), hutsik dauden etxebizitzak murrizteko eta eraikin berriak egitea saihesteko.

- “Ertzak” edo etxebizitzari erantsitakoak bihurtzeko aukera ematea, eraikuntza kontrolari, aireztapenari, altuerari eta abarri buruzko udal araudi espezifikoen esparruan.

- Bertako etxebizitzak bizitzeko erabiltzea sustatzen duten neurriak hartzea, bigarren etxebizitzaren/etxebizitza hutsen ehuneko murrizteko.

- Etxebizitza babestua sustatzeko lurzorua lortzeko mekanismoak ezartzea, gazteak joatea saihesteko.

– Eraikuntza eta urbanizazio jasangarriko irizpideak sartzea obra publikoetan eta pribatuetan.

Ekipamendua:

– Frontoiaren estalkia aldatzeko proposatzea eta eskuineko alboko itxitura egitea, Zalduondoko eraikinen parametro estetikoaren arabera.

Mugikortasuna:

– Oinezkoen sarea hobetzea; oinezkoak herriaren erdialdera joateko sarbide zuzena egitea (espaloiak) –350 m eta ehuneko 6ko malda–, bizitegi sektore berriko espaloietatik joan beharrik ez izateko (Iturberoa kalea, 700 m eta ehuneko 8ko malda).

– Bidegorrien, oinezkoentzako pasealekuen, bideen, lurzatiaren eta pisten sare segurua sortzea, herritarren eguneroko mugikortasunerako, nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza jardueretarako eta aisialdi erabileretarako balioko dutenak.

– Foru Aldundiari garraio publikoa areagotzeko eskatzea, hain garestiak ez diren formula berriak bilatuz, hala nola mikrobusak erabiltzea.

– Erabilerak antolatzea eta arautzea, eta beharizan planifikatzea, mikrobusen eta dagozkien lehentasunen arabera.

Azpiegituren sareak:

- Ur hornidura lorategi publikoak eta txaletak ureztatzeko, kaleak garbitzeko, etab.
- Presatik abiatzen den sare propio bat sortzea, gaur egun zelaiak ureztatzeko eta animalientzat bakarrik erabiltzen baita (ureztatzaileen elkartea).
- Aldundiari Araiako hondakin-uren araztegiarekin (HUA) lotzeko eskatzea, ur beltzak saneatzeko.
- Telekomunikazio sareak hobetzea.
- Udal biltegirako espazio estali bat prestatzea.

Ekonomia Garapena:

- Naturari lotutako turismo azpiegiturak indartzea.

Ingurumen helburuak:

1. Plangintzaren zehaztapen berrien beharra justifikatzea ingurumen eraginen bitartez.
2. Antzemandako beharrak asetzeko azalera ahalik eta txikienari eragiten zaiola justifikatzea.
3. Hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruak erabat okupatzea, lurzoru berria sailkatu aurretik.
4. Biodibertsitateko elementu berezien gaineko eragina saihestea (landaredi autoktonoa, espezie mehatxatuen habitatak, Europar Batasunaren intereseko habitatak, ibaiak eta errekek, heskaiak...).
5. Ingurumenaren ikuspegitik, hautatutako aukera justifikatzea gainerako aukeren aurrean, 0 aukera barne.
6. Biodibertsitatearen egoera globalari eta ingurumen zerbitzuak emateko duen gaitasunari eustea edo hobetzea. Ingurumen kalteak saihesteari lehentasuna ematea, kalteak konpentsatzearen gaineratik.
7. Saihestezintzat ebaluatutako eta benetan gertatzen diren kapital naturalaren galerak konpentsatzea.

1.3. Aztertutako aukerak eta hartutako irtenbideak.

IAEn gaur egun dauden bi aukera nagusien azterketa egiten da bizitegi-hazkundeko jarduketei dagokienez: egungo arau subsidiarioekin jarraitzea edo HAPO berria izapidetzea.

HAPO berriaren aurrerapenean, hasiera batean hiru aukera aztertu ziren "0 aukeraz" gain (jarduketarik eza). Hiru aukerek etxebizitza kopuru jakin bat aurreikusten zuten 1. poligonoko 567. lurzatian (gaur egun hiri lurzoru gisa kalifikatuta dago indarrean dagoen plangintzan) eta 1. poligonoko 328. lurzatian (gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatuta dago. Zalduondoko hirigunearen ondoan kokatutako ia hektarea bateko laborea da, eta eraikinak daude. Bertako 3.000 m² hiri lurzorura bideratuko lirateke). Jarraian, 567 eta 328 lurzatiaren perimetroak adierazten dira:



Hona hemen, laburbilduta, HAPOren aurrerapenean jasotako aukerak:

	ETXEBIZITZA KOPURUA 567 LURZATIAN	ETXEBIZITZA KOPURUA 328 LURZATIAN
1. AUKERA	12 babes publikoko etxebizitza, araubide orokorrekoak	30 udal etxebizitza tasatu babestu
2. AUKERA	12 babes publikoko etxebizitza, araubide orokorrekoak	24 udal etxebizitza tasatu babestu
3. AUKERA	12 babes publikoko etxebizitza, araubide orokorrekoak	12 udal etxebizitza tasatu babestu

Ondoren, herritarrek parte hartzeko aldiaren ondoren, eta jasotako ekarpenen arabera, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten da bizitegi-hazkundearen aukerak, azkenean, araubide orokorreko babes publikoko 8 etxebizitzetara mugatuko liratekeela 567. lurzatian ("A" aukera) eta udal etxebizitza tasatu babestuak beste 8 etxebizitzetara 328. lurzatian ("B" aukera), honako ezaugarri hauekin zehazki:

– "A" aukera (567 lurzatiaren birkalifikazioa):

	INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA	HAPO
AZALERA	1.250 m ²	1.250 m ²
SAILKAPENA	Hiri lurzorua	Hiri lurzorua
ERABILERA	Hezkuntza lokala S.	Bizitegia
ERAIKUNTZAKO PROFILA	—	S + beheko solairua + I + estalpea
ERAIKIGARRITASUNA	—	800 m ² (t)
ETXEBIZITZA KOPURUA	—	8 babes ofizialeko etxebizitza, araubide orokorrekoak

– "B" aukera (328 lurzatiaren birkalifikazioa):

	INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA	HAPO
AZALERA	9.954 m ²	2.000 m ²
SAILKAPENA	Lurzoru urbanizaezina	Hiri lurzoru finkatugabea
ERABILERA	Landa lurra	Bizitegia
ERAIKUNTZAKO PROFILA	—	S + beheko solairua + I + estalpea
ERAIKIGARRITASUNA	—	800 m ² (t)
ETXEBIZITZA KOPURUA	—	8 udal etxebizitza tasatu babestu

Azkenik, HAPOren 2022ko urriko behin-behineko onarpen dokumentuari jarraikiz, bizitegi-hazkundeari dagokionez, 1. poligonoko 566 eta 567 lurzatiak birkalifikatzea erabaki da. Hala, araubide orokorreko babes publikoko 6 etxebizitza eraikiko dira. Bestalde, 1. poligonoko 328 lurzatiaren zati bat sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa birsailkatu da, bizitegiarako gordetzeko. Era berean, eraikitzeke beste aukera batzuk egongo lirateke egungo bizitegiarako hiri lurzorian, zehazki 33 etxebizitza gehienez.

Zalduondoko HAPOk ez du jarduera ekonomikoetarako lurzorurik xedatzen zentzu hertsian; beraz, ez da aukerarik ezarri mota horretako lurzoruetarako.

IAEn gaur egun dauden bi aukera nagusien azterketa egiten da lurzoru urbanizaezina zonakatzeari dagokionez: egungo arau subsidiarioekin jarraitzea edo HAPO berria izapidetzea. Bertan, lurzoru urbanizaezina honela banatzea proposatzen da:

- Babes bereziko eremua.
- Ingurumen-hobekuntzako eremua.
- Basoa.
- Mendi mehatza.
- Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabalekoa, balio estrategiko handia.
- Nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabalekoa, landa-paisaia.

- Mendi-larreen eremua.
- Gainazaleko urak babesteko eremua.
- Landaguneak.
- Beste kokagune batzuen eremua.

Adierazi behar da babes bereziko kategorian sartuko liratekeela pagadi arboladiak, irla hariztiak, Santa Luzia urmaela, Zapatari urtegia, ur biltegiaren soberakinaren iturburua eta ibaien ertzak.

Halaber, proposatu da honako baldintzazaile gainjarriak ezartzea, HAPOn aurrerapen agirian egindako proposamenari zenbait kategoria gehituz:

Arrisku naturalak eta klima aldaketa:

- Akuiferoen kalteberatasuna.
- Arrisku geologikoa edo higadura.
- Uholde eremuak.
- Klima-aldaketari lotutako arriskuak.

Azpiegitura berdea:

- Naturagune babestuak.
- Erabilera publikoko mendiak.
- Igarobide ekologikoak.

Ondare babesa:

- Katalogatutako ondasunak.
- Arkeologia zonak eta presuntziokoak.

1.3.1. Aukeren balorazioa ingurumen azterketa estrategikoan.

IAEn adierazten denaren arabera, HAPOk proposatzen dituen bizitegi aukerek ez dakarte aldaketa handirik udal lurzorua sailkapenean; izan ere, hiru lurzati soilik eragingo diete: bi gaur egun hiri lurzoru gisa kalifikatuta daude (566 eta 567 lurzatiak), eta bestea hirigunearen ondoan dago (328 lurzati), eta lurzoru urbanizaezinetik partzialki hiri lurzورا birkalifikatzea proposatzen da (3.000 m²). Labore baten zati bati eragingo lioke. Bizitegi aukera horiek, aldaketak txikiak badira ere, herrian babestutako etxebizitza gehiago egotea ekarriko lukete. Hori ezinbestekoa da udalerrian biztanleak finkatzeko.

Bestalde, lurzoru urbanizaezina banatzeko proposamena eta haren baldintzazaile gainjarriak, IAEn arabera, egungo plangintzan jasotakoak baino osatuagoak dira ingurumena kontserbatzeari dagokionez. Beraz, Zalduondoko udalerriko ingurumen elementuak eta eremuak hobekien babestuko dituen aukera izango dela uste da, eta, gainera, erabilera mugaketa xehatuagoa ahalbidetuko du.

2. Ebaluazio prozesuaren analisisa. Ingurumen azterketa estrategikoaren balorazioa: Kalitatea eta ondorioak

Ingurumen azterketa estrategikoaren edukia aztertuta, pentsatzen dugu, orokorrean eta egituraren arloan, agiriak kalitate egokia duela txosten honen xede den HAPOn ingurumen ebaluazio estrategikoa gauzatzeko. Ukitutako eremuaren ingurumen analisi, diagnostiko eta balorazio berbera egin da, baita eraginen identifikazioa eta balorazioa eta prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurrien proposamena ere, eta planaren ondorioak berrikusteko ingurumen zaintzako programa bat jaso da. Ondorengo apartatuetan, arreta bereziz eta banaka aztertu behar diren alderdiak jorratuko dira (zenbait kasutan, berrikusi beharko lirateke).

3. Irismeneko dokumentuan eta egindako kontsulten emaitzetan ezarritako eskakizunak kontuan izatea

3.1. Irismeneko dokumentuan ezarritako eskakizunak:

Lehenik eta behin, adierazi behar da 2018ko urriaren 26an irismeneko dokumentua egin zenetik HAPOn azapidetzen jarraitu dela eta, hortaz, hainbat aurrerapen egin direla. Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek emandako IAEren irismeneko dokumentuan eremu batzuk definitu ziren, non, ingurumen ondorioak direla eta, IAEk ingurumen azterketa zehatza egin behar harko bailuke eta zehaztasun handiagoz zehaztu beharko bailirateke aurreikusitako jarduketak.

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENeko AGIRIARI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HAPO-REN HIRIGINTZA AGIRIAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
Bizitegi berriak Zalduondoko herrigunean	
<p>(Irismeneko dokumentua): HAPON proposatzen diren bizitegi berriek, 1. poligonoko 567. eta 328. lurzatiei eragiten dieten hiru aukerei (1., 2. eta 3. aukerak) begira, ez dute eragin nabarmenik izango balio handiko ingurumen elementu edo eremuetan. Izan ere, bi lurzatiek ez dute zuhaixkarik edo zuhaitzik (567. lurzatiean berriki landatutako intxaurren gazte batzuk izan ezik). Gainera, bizitegitarako hiri lurzoru garatuz inguratutako eremuak dira, eta, beraz, herriaren hirigintza plangintzarekin bat datoz.</p> <p>Hala ere, eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzaren alegazio txostena kontuan hartuta, zeina HAPOn ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren kontsulta fasean jaso baitzen, 1. poligonoko 328. lurzatiea sektorizatutako lurzoru urbanizagarri gisa birkalkifikatzeari dagokionez, lurzoru hori "Trantsizioko Landa Paisaia" kategoriakoa denez Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, eta erabileren matrizea (2b) ikusita, plangintzak nekazaritza inguruneko inpaktuaren balorazio espezifikoak jaso beharko du aukeren azterketaren barruan.</p>	<p>Alderdi hori IAEaren 6.2 apartatuan jorratzen da, zehazki b) epigrafearen 1. puntuan, eta IAEaren 56. orrialdean jasotako 1. aukeraren inpaktu-matrizean adierazten da inpaktua neurritzeko izango dela nekazaritza lurzoruan izango duen eraginari dagokionez. Era berean, IAEren 9. apartatuan, Nekazaritzaren Sektoreko Eragina Ebaluatze Protokoloa (PEAS) egin da. Horretarako, HAPOn bizitegi-aukerak nekazaritza ingurunean izango lituzketen ondorioen azterketa zehatua egin da, eta ondorioztatu da hautatutako bizitegi-aukerak ez lukeela eragin esanguratsurik izango nekazaritza ingurunean.</p>
Babestutako naturaguneak	
<p>(Irismeneko dokumentua): Zalduondo udalerrian babestutako naturagune izendatutako honako eremu hauek daude:</p> <p>— Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Naturagune Babestua (apirilaren 4ko 76/2006 Dekretua, Aizkorri-Aratz Parke Naturala izendatzen duena).</p> <p>— Natura 2000 Sareko Espazio Natural Babestua, kontserbazio bereziko eremua (KBE): Aizkorri-Aratz (ES2120002). (Eusko Jaurlaritzaren 83/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen duena). (...)</p> <p>Babes bereziko eremuen araudiari dagokionez, zeinak bat baitatuz udalerriko hirigintza- eta ingurumen-babes handieneko eremuekin, beharrezkotzat jotzen dugu plan orokorraren araudiak berariaz debekatzea urbanizazio eta eraikuntza erabilera guztiak eta berezko fisiografia aldatzea dakarten jarduketak guztiak, baldin eta eremua babestearekin edo kudeatzearekin, ikerketarekin, ingurumen hezkuntzarekin edo zientzia dibulgazioarekin lotuta ez badaude. (...)</p>	<p>Alderdi hori IAEaren 6.3 apartatuan lantzen da, eta Aizkorri-Aratz KBEa eta parke naturala babes bereziko kategorian sartzen direla jasotzen da. Halaber, adierazten da berariaz debekatuko direla hirigintza eta eraikuntza erabilera guztiak eta fisiografia naturala aldatzen duten jarduketak guztiak, baldin eta eremua babesteari edo kudeatzeari, ikerketari, ingurumen hezkuntzari edo dibulgazio zientifikoari lotuta ez badaude. Egiaztatu da alderdi horiek behar bezala jaso direla hirigintza dokumentuan eta HAPOn kartografian.</p>
Paisaia bereziak eta bikainak	
<p>(Irismeneko dokumentua): Beren paisaia merezimenduengatik katalogatutako eremuei baldintza gainjarri bat ezarri behar zaiela uste da, Paisaia Bereziak eta Bikainak izeneko edo antzekoa. Baldintza horrek prebentzioko eta babeseko beharrezko baldintzak eta aginduak barne hartu beharko ditu, "Elgea-Urkilla mendilerroak" (24 kodea) eta "Aratz-Araba mendiak" (42 zenbakia) izeneko paisaia bikainetan eraikuntza, urbanizazio eta eragin nabarmenak ekartzen dituen beste edozein erabilaren aurrean, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren arabera.</p>	<p>IAEren 6.3 apartatuan adierazten da "Elgea-Urkilla mendilerroak" eta "Aratz-Araba mendiak" izeneko paisaia S21 Naturagune Babestuak baldintza gainjarrian integratu direla, eta egiaztatu da hori izan dela kartografian emandako tratamendua; ez, ordea, hirigintza dokumentuaren arauetan emandakoa. Ingurumen adierazpen estrategiko honen ondorengo apartatuetan aztertuko da alderdi hori.</p>

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENEO AGIRIARI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HAPO-REN HIRIGINTZA AGIRIAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
Konektibitate ekologikoa	
<p>(Irismeneko dokumentua): Udalerriko zenbait eremu Arabako Lurralde Historikoko igarobide ekologikoen sarearen barruan daude (Arabako Lurralde Historikoko Konektibitate Ekologiko-Paisajistikoaren Estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005). Hori dela eta, uste dugu udalerraren konektibitate ekologikoa eta lurraldekoarekin duen harremana berriaz tratatu eta kontuan hartu behar dela HAPO dokumentuan eta IAEn, eta prebentzioko eta babeseko beharrezko ingurumen baldintzak eta aginduak definitu egin behar direla eraikuntza eta urbanizazio erabilerak eta konektibitate ekologikoan eragin nabarmenak dituen beste edozein erabilera baimentzeko. Ondorio horietarako, egokia irizten zaio igarobide ekologikoak deritzon baldintza gainjarri bat kontuan hartzeari. Eremu horietan, eta aurreko apartatua paisaia bereziak eta apartekoak izeneko gaineratutako baldintzari dagokionez aipatu den moduan, plan orokorraren araudian igarobide ekologikoak babesteko arauketa espezifikoa ezarri beharko da.</p>	<p>IAEren 6.3 apartatua adierazten da EAeko igarobide ekologikoen sareko elementuak "Igarobide Ekologikoak" izeneko baldintza gainjarrian jasotzen direla, eta egiaztatu da hori izan dela kartografian eta hirigintza dokumentuaren arauetan emandako tratamendua.</p> <p>Baldintza gainjarria jaso behar dela uste da, Arabako Lurralde Historikoko igarobide ekologikoen sarea aipatzearen eta kartografiatzearen bidez.</p> <p>Ingurumen adierazpen estrategiko honen ondorengo apartatuetan aztertuko da alderdi hori.</p>
Europar Batasunaren intereseko eta lehentasuneko habitatak eta baso eremu autoktonoak	
<p>(Irismeneko dokumentua): hirigintza planaren oinarritzko jasangarritasun irizpideetako bat habitat horien babesa bermatzea izan behar da, haien kontserbazioa bermatuko duen lurzoru urbanizaezinaren kategoriaren batean sartuta. (...)</p> <p>Udalerriko baso eremu autoktonoak eta landaredi autoktonoa duten ibaiertzak eta errekek IAEn adierazi behar dira, eta lurzoru urbanizaezinaren kategoriaren baten barruan ere zonakatu behar dira, horien babesa bermatzeko ("Babes bereziko eremua," "Erabateko babeseko baso eremua", "Azaleko uren babes eremua" edo antzekoa). IAEk baloratuko ditu ingurumen sentikorrenen aldeetan HAPOn jasotako jarduketek izan ditzaketen ondorioak. Baso intereseko eremuetan aplikatu beharreko araudiari dagokionez, nekazaritza erabilerak eta ureztatzeko azpiegiturak onartezintzat jo beharko lirateke, eta erabilera horiek nekazaritza eta abeltzaintza intereseko lurzoruetan gauzatu beharko lirateke. (...)</p>	<p>IAEren 6.3 apartatua alderdi hori jorratzen da, eta egokitzen jotzen da IAEn, hirigintza dokumentuaren kartografian eta hirigintza arauetan emandako ikuspegia. Aurrekoa gorabehera, bi ohar egiten dira horri buruz: bata, zuhaitz berezien inbentario bat barne hartzeari buruzkoa, IAEren arabera HAPOk jaso beharko lukeena, zuhaitzak berriazko araudi baten bidez babesteko; eta, bestea, lurzoru urbanizaezinaren babes bereziko eremuan baimendutako edo bateragarriak diren erabilerari buruzkoa.</p> <p>Ingurumen adierazpen estrategiko honen ondorengo apartatuetan aztertuko da alderdi hori.</p>
Mehatxatutako flora	
<p>(Irismeneko dokumentua): Udalerriko mehatxatutako flora espezieen eremuak IAEn adierazi beharko dira, eta zonakatu beharko dira, ahal den neurrian, horien babesa bermatzen duen lurzoru urbanizaezineko kategoriaren batean. IAEk baloratuko ditu ingurumen sentikorrenen aldeetan HAPOn jasotako jarduketek izan ditzaketen ondorioak.</p>	<p>Alderdi hori IAEn zenbait apartatutan jaso da, eta ondorioztatu da taxon babestuak dituzten eremuak (1x1 laukiak) behar bezala sartu direla HAPOren kartografian. Era berean, mehatxatutako floraren ingurumen integrazioarako neurriak jasotzen dira.</p>
Fauna	
<p>(Irismeneko dokumentua): IAEn egon daitezkeen zuzeneko edo zeharkako ondorioak baloratze alal espezifikoa sartu behar da. IAEk plan orokorrean ezarritako jarduketek espezie horietan eta haien habitatetan eragin ditzaketen inpaktuak aztertu behar ditu, eta, nolahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren xedapenetan jasotako ingurumen helburu eta irizpideak hartuko dira aintzat.</p>	<p>Alderdi hori xehetasun nahikoarekin jorratu da IAEn zenbait apartatutan. Era berean, mehatxatutako faunaren ingurumen integrazioarako neurriak jasotzen dira.</p>

INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAK ETA, AZKEN BURUAN, HIRIGINTZA AGIRIAK ARRETA BEREZIAZ JORRATU BEHARREKO EREMUAK, INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENEN AGIRIARI JARRAIKIZ	HAPO-N PROPOSATURIKO EREMU ARAZOTSUEI BURUZ EZARTZEN DIREN ETA HAPO-REN HIRIGINTZA AGIRIAN NAHITAEZKO BETEKIZUN GISA SARTU BEHAR DIREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeak	
(Irismeneko dokumentua): esparru horiek Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauan ezarritako antolamendu eta aginduak bete behar dituzte. Adierazi beharra dago Zalduondoko udalerritik "GR-25 Arabako Lautadako Bira mendi magalean" bidearen zati bat pasatzen dela, baita "GR 120 Ignaziotar Bidea", "Done Jakue bidea" eta "PR-A-13 Posta Errege Bidea" ere. Pentsatzen da ibilbide berdeko tarte horietan, bai eta tokiko interesa dela eta garrantzitsuak diren beste tarte batzuetan ere, baldintza gainjarri bat edo kategoriatu edo sistema orokor espezifiko bat ezarri beharko litzatekeela ("Komunikazio sistema orokorra-ibilbide berdea" izan liteke); halaber, eraikuntza eta urbanizazio erabileren eta ibilbide horien gaineko eragin nabarmenak ekartzen dituen beste edozein erabileraren aurrean prebentzioko eta babeseko beharrezko baldintzak eta aginduak ezarri beharko dira sistema orokorrari buruzko araudian. Era berean, izapidetzen ari den eta Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko lurralde planak xedatzen duen "Ametzaga-Egilazko trikuharria ibilbide berdea eta adarrak" barne hartu beharko litzateke.	Bai IAEan, bai hirigintza dokumentuan, Ibilbide berdeak arautzen dituen 1/2012 Foru Araua aipatzen da eta udalerriko ibilbide berdeak zerrendatzen dira, baina gabezia garrantzitsuak antzeman dira adierazitako udalerriko ibilbideei dagokienez. Ingurumen adierazpen estrategiko honen ondorengo apartatuetan aztertuko da alderdi hori.
Udalerriko ondare arkeologikoa	
(Irismeneko dokumentua): udalerriko ondare arkeologikoari dagokionez, HAPOk kontuan hartu beharko luke, eta honela sailkatu: arkeologia zona kalifikatuak, arkeologia zona inbentariatuak, ustezko zona arkeologikoak eta kalifikatzeko edo inbentariatzeko proposatutako zona arkeologikoak.	Alderdi hori IAEan lantzen da, eta hirigintza dokumentuan jasotzen da, bai araudian, bai kartografian, zehazki "Arkeologia zonak eta presuntziokoak" izeneko S32 baldintza gainjarriaren bidez.

3.2. Egindako kontsulten emaitza eta jendurrean jartzea.

Lehenik eta behin, eta IAEren irismen dokumentua emateko egindako kontsulta faseari dagokionez, dokumentu horretan laburbildu eta alegazioen kopia osoak Zalduondoko Udalerri helarazi zitzaizkion, honako erakunde hauen aldetik: URA-Uraren Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.

Bigarrenik, interesdunek egindako alegazioak jasotzen diren faseari dagokionez eta IAE eta HAPOren hasierako onarpen dokumentua jendurrean jarri ondoren, guztira 27 alegazio jaso ziren, ia guztiak partikularrek eginak. Hala, idazleen lantaldeak txosten teknikoa egin zuen 2021eko azaroan, eta horren bidez erantzun zituen HAPOren hasierako onarpenari aurkeztutako alegazioak. Alegazioetan, oro har, behin eta berriz errepikatzen diren hiru gai nagusi daude. Gainerakoa lurzatiaren jabe pribatuekin lotutako gaiak dira batez ere, sarbideei, partzelen kalifikazioei eta abarri buruzkoak. Errepikatzen den lehen gaia jabeen zuzenbide pribatuaren defentsari buruzkoa da, udalari lurzatiarik laga behar ez izateko; bigarrena, babestutako etxebizitzak eraiki beharrean birgaitzeari lehentasuna emateari buruzkoa da; eta hirugarrena, ekipamendu eta azpiegitura jakin batzuk zalantzan jartzeari (Kortako interpretazio zentroa eta frontoia itzea) eta uraren tratamenduari buruzkoa da. Azken alderdi horri dagokionez, adierazi behar da 22. alegazioa, besteak beste, ikuspegi ekologikotik hondakin-urak tratatzeari buruzkoa dela, eta baita ibilguak birnaturalizatzeari eta uraren zikloa integratzeari buruzkoa ere, eta ingurumen organo honek egokitzen du ingurumenaren aldetik. Horregatik, IAEan jasotako ingurumen zaintzako programaz gain, egokitzen du ingurumen integratzei neurriak HAPOa behin betiko onesteko hirigintza dokumentuan jaso behar direla, ildo horretako ingurumen alderdiak jasotzen dituztelako.

Hirugarrenik, HAPOren hasierako onarpenaren erabakia jendurrean jarri zenean aurkeztutako 27 alegazioak ikusita, hasierako onarpena osatzen duen dokumentu bat idatzi zen, eta, 2022ko urtarrilaren 13ko osoko bilkuran onartu ondoren, hilabete baterako jarri zen jendurrean. Izapide horretan, zazpi alegazio idatzi aurkeztu ziren, bai eta hasierako informazio publikoko

fasearen alegazioa zuzentzeko eta berresteko idazki bat ere. Fase honetan jasotako alegazioak askotarikoak dira (telekomunikazioei buruzkoak, HAPOn jasotako informazioaren zehaztasunik ezari buruzkoak, lurzati baten desklasifikazioari buruzkoak, etab.), eta, oro har, ez dira ingurumen gaiei buruzkoak.

Laugarrenik, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei zuzendutako kontsulten fasean, hasiera batean 2021eko maiatzaren 24an onetsitako HAPOrri buruzko zenbait txosten sektorial jaso ziren, eta ingurumenarekin zerikusia zuten alegazioak laburbilduta jaso ziren. Alegazio horiek HAPOn 2022ko urriko behin-behineko onarpen dokumentuan partzialki hartu dira kontuan. Honako hauek dira, zehazki, jasotako alegazioak:

– Estatuko Administrazio Orokorreko Telekomunikazioen eta Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuak Antolatzeke Zuzendaritza Nagusiaren txostena.

– Estatuko Administrazio Orokorreko Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena.

– Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren txostena.

– Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren txostena. Oro har, adierazten da HAPO EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialarekin (LPS) bat datorrela, baina zenbait ohar egiten ditu. Hala nola, adierazten du lurzoru urbanizaezineko eraikuntzek bat etorri beharko luketela LPS horren 11. artikuluekin, eta argitu egin behar direla lurzoru urbanizaezinenaren zonakatze globalaren azalerei buruz emandako zenbait daturen arteko desadostasunak.

– Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena. Zehaztapen zehatzak egiten zaizkio HAPOn dokumentuari, eta HAPOk kontuan hartu beharreko alderdiak zerrendatzen dira: Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legea; Donejakue Bidearen 2/2012 kalifikazio dekretuaren 2021eko ekainaren 1eko Ebazpena (2021eko ekainaren 11ko EHAA); ondare arkeologikoaren kategorien izen eguneratuak; lurra mugitu aurretik Aldundiko Kultura Sailak baimena ematearen beharra, eta Eusko Jaurlaritzako udal zona arkeologikoen zerrenda.

– Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostena. Hainbat gomendio egiten dira: terminologia Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeak ezarritakora eguneratzea; higiezinak oinarritzko hiru mailatan kategorizatzea; ondare historiko-arkitektoniko guztia HAPOn sartzea, Foru Aldundian eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dauden zerrenda guztiak kontuan hartuta; elementu higiezin bakoitza fitxen bidez banaka aztertzea planteatzeko beharra; ondare historiko-arkitektonikoaren araudiari eta antolamenduari buruzko gomendioak, eta Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren informazio geografikoa eskura jartzea Geoarabaren eta Google Earth-en bidez.

– Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena. Arkitektura ondareari eta ondare arkeologikoari buruzko gogoeta orokor batzuk egin ondoren, honako hau ondorioztatzen da: Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera egokitu behar da erabilitako terminologia; Kultura Ondarearen Katalogoko informazioa osatu behar da, ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementu guztiei dagozkien fitxak eta planoak erantsita; ondare arkeologikoa babesteko araubideari buruz idatzitakoa hobe zehaztu behar da; ustezko zona arkeologikoen antzeko araubidea aplikatu behar zaie gaur egun inolako babes juridikorik ez duten interes arkeologikoko elementuei, eta Katalogoa eguneratzeko aukera aintzat hartu behar da.

– Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena. Jabari publiko hidraulikoaren babesari eta korronteen araubideari dagokienez, jakinarazten da ezin dela txosten xehatu bat egin Zaldudondoko HAPOn espedientean dagoen informazioarekin. Eskaera hidriko berriei dagokienez, jakinarazten da HAPOk ez lukeela baliabide hidriko berririk eskatuko, egungo hornidura sistemak nahikoak baitira etorkizuneko behar guztiei erantzuteko.

– URA-Uraren Euskal Agentziaren txostena. Gogoeta batzuk egin ondoren, honako hauek ondorioztatu dira: iparraldetik hegoaldera doan lurpeko ibilgua kartografikoki trazatu behar da, eta gutxienez 5 metroko atzerapena jaso behar da; HAPOn araudian nahitaez jaso behar da Arakil ibaiaren uholde arriskua azterketa hidraulikoaren bidez aztertu behar dela AA3 eta AA4 jarduketa isolatuetarako; eraikuntza berriek eragindako azaleretan hiri drainatze jasangarriko sistemak sartzeko aukera aztertu behar da; Urdasakon ur harpena grafikoki irudikatu behar da; eta informazioa eman behar da isurketak sortuko dituzten proposatutako erabilera berriak ezingo direla garatu harik eta hondakin-uren tratamendu egokia bermatuko duen irtenbidea gauzatu arte.

4. Balizko eragin esanguratsuak eta ingurumen integrazioarako neurriak aurrez aztertzea. Ingurumen Zaintza Programa

Zalduondoko HAPOn eratorritako ondorio esanguratsuak IAEren zenbait apartatutan deskribatzen dira. Oro har, Zalduondoko HAPOn aplikazioak sorraraz ditzakeen eragin nabarmenen aurreikuspenaren azterketa era egokian egin dela uste dugu, honako ingurumen aldagai hauek banan-banan eta behar besteko sakontasunez aztertu baitira:

- Nekazaritzako lurra babestea eta kontserbatzea, artifizializazioa saihesteko.
- Sistema hidrikoa babestea eta kontserbatzea.
- Lurralde orekatua.
- Lurzoruak berrerabiltzea eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak kudeatzea.
- Uholdeek eragindako arriskuak murriztea.
- Suteen eta/edo higaduraren ondoriozko arriskuak murriztea.
- Mugikortasuna murriztea.
- Ura kudeatzea.
- Energia kudeatzea.
- Mehatxatutako biodibertsitatea, fauna eta flora sustatzea eta babestea.
- Hiriko biodibertsitatea sustatzea eta babestea.
- Katalogatutako espazio naturalak.
- Kultura ondarea zaintzea.
- Biztanleriari, osasunari eta ongizateari eragitea.
- Paisaia.
- Sortutako eta jasandako zarata kudeatzea.
- Bestelako arriskuak murriztea.

Adierazi behar da IAEko apartatu espezifikoetan ebaluatzen direla HAPOk Natura 2000 Sarean dituen ondorioak. Era berean, apartatu espezifikoak eskaintzen dira azterketa akustikorako, Nekazaritzaren Sektoreko Eragina Ebaluatzeko Protokolorako (PEAS) eta HAPOk bisoi europarraren habitatean dituen eraginen azterketa espezifikorako.

IAEan jasotako ingurumen integrazioko neurriak, 11. kapituluaren (ingurumena babesteko neurri buruzkoan), izaera orokorreko gomendioei eta jardunbide egokiei buruzkoak dira, bai eta alderdi jakin batzuei heltzeko neurri zehatz eta espezifikoak ere; besteak beste:

- Erabileren eta plangintzaren matrizerako irizpide estrategiko orokorrak: prebentzio neurriak.
- Ingurumen aldagai buruz proposatutako neurri orokorrak.
- Lurzoru urbanizaezina kategorizatze neurriak.

- Gaineratutako baldintzetarako neurriak.
- Hiri lurzoruko jarduketetarako neurriak.
- Sistema orokorretarako neurriak.

IAEren 12. apartatuan jasotako ingurumen zaintzako programaz gain, adierazitako ingurumen integrazioko neurriak HAPOn behin betiko onesteko hirigintza dokumentuan jaso behar dira, ingurumen adierazpen estrategiko honen hurrengo apartatuan adierazi diren gidalerro eta oharrekin batera.

5. Berrito definitu edo kendu beharko liratekeen HAPOn jarduketak

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ingurumen adierazpen estrategikoan adierazitako zehaztapenak HAPOn jaso behar dira; halaber, sustatzaileak aipatutako 21/2013 Legearen 26.2. artikuluko b) apartatuan jasotako hizpaketak biltzen dituen laburpena egingo du. Era berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 74.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ingurumen adierazpen estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da.

Oro har, ez da HAPOn jasotako inolako jarduketarik kendu behar. Alabaina, txosten hone-tako aurreko apartatuetan adierazitako zenbait alderdi berrito definitu behar dira; hona hemen laburbilduta:

1. Beren paisaia merezimenduengatik katalogatutako eremuei baldintza gainjarri eskusibo bat ezarri behar zaiela uste da, Paisaia Bereziak eta Bikainak izenekoa edo antzekoa. Baldintza horrek prebentzioko eta babeseko beharrezko baldintzak eta aginduak barne hartu beharko ditu, "Elgea-Urkilla mendilerroak" (24 kodea) eta "Aratz-Araba mendiak" (42 zenbakia) izeneko paisaia bikainetan eraikuntza, urbanizazio eta eragin nabarmenak ekartzen dituen beste edozein erabileraren aurrean, Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren arabera. Erabaki horren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoa onartu zen. Eskakizun hori HAPOn dokumentazio kartografikoan eta araudian jaso behar da.

2. Honako eremu hauei baldintza gainjarri bat ezarri behar zaiela uste da, igarobide ekologikoa izenekoa edo antzekoa: Arabako Lurralde Historikoko igarobide ekologikoen sarearen barruan katalogatutako eremuak (Arabako Lurralde Historikoko Konektibitate Ekologiko-Paisajistikoaren Estrategia. Ingurumen Zuzendaritza. Arabako Foru Aldundia. 2005); Euskal Autonomia Erkidegoko igarobide ekologikoen sarea (Eusko Jaurlaritza. 2005) eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen azpiegitura berdea (biodibertsitate erreserbak, igarobide ekologikoak eta bilbe urdina). Halaber, prebentzioko eta babeseko beharrezko ingurumen baldintzak eta aginduak definitu egin behar dira eraikuntza eta urbanizazio erabilerak eta konektibitate ekologikoan eragin nabarmenak dituen beste edozein erabilera baimentzeko. Eskakizun hori HAPOn dokumentazio kartografikoan eta araudian jaso behar da.

3. Egokitzen jotzen da aipatzea ezen, lurzoru urbanizaezinaren babes bereziko kategorian, "Arabako Lurralde Historikoko Zuhaitz Berezien Inbentarioa. Katalogazio proposamena eta zuhaitzak babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak" (2011ko abendua, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuko Zuzendaritza Teknikoa) eta "Zalduondoko zuhaitz berezien inbentarioan" (2008ko urria, Arabako Foru Aldundiaren eta ICTren zuzendaritzapean) jasotako zuhaitz guztiak, gutxienez, tratamendu espezifikoa eta erabateko babesa izango dutela, eta labur-labur zerrendatuko direla aipatutako lehen lanean Zalduondon aurkitutako 17 aleak eta haien kokapena, bai eta aipatutako bigarren inbentarioan identifikatutako 62 oinak ere. Zalduondoko HAPOn lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeko kartografiaren arabera, aipatutako lanetan Zalduondon inbentariatutako zuhaitz guztiak, beren ingurumen eta paisaia balio bereziagatik eta egoera fitosanitario onagatik, babes bereziko kategorian daude.

4. Lurzoru urbanizaezinaren babes bereziko eta ingurumen hobekuntzako kategoriak arautzeari buruzko 1.6.2.2 artikuluan, babes bereziko eremuan (J11) baimendutako erabilerei buruzko 1. apartatuan, adierazten da lurpeko lineak baimendu daitezkeela; nolana ere, hori ez da egokia jotzen, eremu horiek duten ingurumen balio bikainagatik eta haietan eragin daitezkeen ingurumen inpaktu larriengatik. Ildo horretan, eskatzen da ezartzea mota askotako azpiegiturak izan ditzaketen lurpeko linea horiek salbuespen gisa baino ez direla onartuko babes bereziko kategorian. Halaber, trazadura justifikatu beharko da eta ingurumen inpaktu ahalik eta txikiena izan beharko dute, eta alde zuzenetik haien eragina xehetasunez aztertu beharko da eta organo kudeatzaileak onartu beharko du babestutako naturaguneraren bati eraginez gero. Lurpeko lineak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren beste aukerarik ez badago egingo dira.

5. IAEn eta hirigintza dokumentuan Ibilbide berdeak arautzen dituen 1/2012 Foru Araua aipatzen da eta udalerriko ibilbide berdeak zerrendatzen dira, baina gabezia garrantzitsuak antzeman dira adierazitako udalerriko ibilbideei dagokienez.

IAEn eta HAPOn Zalduondo udalerrian dauden honako ibilbide berde hauek aipatzen dira:

- GR-25 Arabako Lautadako mendi magaleko bira.
- GR-120 Ignaziotar Bidea.
- Done Jakue bidea.
- PR-A 13 Posta Errege Bidea.

Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko lurralde planaren arabera, Zalduondo udalerrian honako ibilbide berde hauek egongo lirateke:

- IV5- Posta Errege Bidea.
- IV 13- GR-25 Arabako Lautadako mendi magaleko bira.
- IV16- Erromes bidea-Done Jakue bidea.
- IV37- Egilazko Trikuharriaren Ibilbide Berdea eta Done Jakue Bidearekin lotzeko adarrak eta GR-25ekin "Arabako Lautadako mendi magaleko itzulia" Zalduondon eta Agurainen eta GR-120ekin "Inaziotar Bidea" Araian.

Ildo horretan, beharrezkoa da HAPOn zati kartografikoan zein arau zatian udalerriko ibilbide berdeen zerrenda eguneratzea eta irudikapen kartografikoan kolore egoki eta agerikoak erabiltzea, ibilbide berde horiek Oinezkoentzako Komunikazio Sistema Orokor gisa irudikatzen. Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko lurralde planaren dokumentazio kartografikoa www.pts-vciv.com webgunean kontsultatzeko eskatzen da, HAPOn ibilbide berde horiek trazatzean akatsik ez egoteko.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan emandako eskudantziak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenena. Zalduondoko (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa ematea.

Bigarrena. Ingurumen adierazpen estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da, Eusko-diko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 74.1 artikulua arabera.

Hirugarrena. Ingurumen adierazpen estrategikoak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, argitaratu ondoren lau urteko epean plana hartu edo onetsi ez bada. Ez da beharrezkoa izango ingurumen organoak esanbidezko ebazpenik ematea ingurumen adierazpen estrategikoaren indar galtzea adierazteko. Kasu horietan, sustatzaileak berriro

hasi beharko du planaren ingurumen ebaluazioaren izapidea, salbu eta indarraldia luzatzeko eskatzen badio ingurumen organoari eta organo horrek baimena ematen badu. Hori guztia, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 74.4 eta 74.5 artikuluen arabera.

Laugarrena. Aginduko da ingurumen adierazpen estrategiko hau ALHAOn argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 17a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA